

Ordiziako Udala

2025ITGB0001

Ordizian, 2025eko urtarrilak 30ean, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Aparteko batzarran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día 30 de enero de 2025 se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión extraordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA

Adur Ezenarro Agirre

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK

Maitane Alvarez Garziandia (EH BILDU ORDIZIA)
Ainhoa Jimenez Goñi (EH BILDU ORDIZIA)
Joseba Aranburu Ganzarain (EAJ-PNV)
Viviana Angélica Murillo Cazar (ORDIZIA ORAIN-ELKARREKIN PODEMOS)
Ana M^a Sánchez Herráez (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK

Julen Iraola zinegotziari parte hartzeko aukera eman zaio.

AZTERTUTAKO GAIAK


ASUNTOS TRATADOS

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:

1. 2024ko abenduak 12ko ohiko bilkurako akta onartzea.
2. 2025eko urtarrilak 9ko ohiko bilkurako akta onartzea.
3. Kontratu txikien berri ematea.
2025SCTX001 / 2025SCTX003
(2025/70 eta 2025/102 dekretuak).
4. 2024ko abenduko sailen Kudeaketa Txostenak (2024A0010001)
5. Galderak eta eskaerak

1. Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 12 de diciembre de 2024
2. Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 9 de enero de 2025
3. Dación de cuenta de los contratos menores. 2025SCTX001 /2025SCTX003
(Decretos 2025/70 y 2025/102).
4. Dación de cuenta de los Informes de Gestión de los diferentes departamentos (20240010001)
5. Ruegos y preguntas.



Ordiziako Udala

2025ITGB0001


- .- Urdanetaren obraren dirulaguntzak.
- .- Torresol inguruan arazoak ur-kanalizazioekin.
- .- P21 igogailuaren mantentze lanak.
- .- Larratxa etxean dauden gazteei buruzko informazioa
- .- La Paz tabernako edukiontzien aurrean arratoiei buruzko kexak
- .- Altamiran egiten ari diren obrei buruz galdera.
- .- Bileretako egutegiaren gaia argitu du. Adostu zen egutegia da.
- .- Espedienteetara sartzeko baliabideak jartzea zinegotziei.
- .- Gobernu Batzordearen funtzionamentuari buruz zenbait argibide:
 - Organo aholku-emailea da.
 - Borondatez. denbora da modu irekian eta parte hartzailean egiten
 - Alderdi bakoitzak bere aholkulariak izango ditu, beraien azterketak egin ahal izateko eta gauzak errazte aldera.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 16:30etan

AMAIERA ORDUA: 17:36etan





Ordiziako Udala

2025ITGB0001

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2024ko abenduak 12ko ohiko bilkurako akta onartzea.

2.- Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 12 de diciembre de 2024

Proposamena

Propuesta

2024ko abendua 12ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 12 de diciembre de 2024

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Viviana Angelica Murillok aktan aldaketak proposatu ditu, bere azalpenetan zehaztasun gehiago egiteko eskatu du, eta akta aldatzea proposatu du.

Viviana Angélica Murillo solicita se haga mayor precisión en su intervención, y propone se modifique el acta

Idazkariak adierazi du ez duela arazorik Gobernu Batzordearen inguruko oharrek berrikusteko. Zehazteko eskatzen direnak igortzea eskatzen da.

La secretaria comenta que no tiene problema alguno en revisar las notas de la Junta de Gobierno. Solicita se remita las precisiones que se plantean.

Akta ez da onartzen, zuzenketa egiteke gelditzen da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- 2025eko urtarrilak 9ko ohiko bilkurako akta onartzea.

2.- Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 9 de enero de 2025

Proposamena

Propuesta

2025eko urtarrilak 9ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 9 de enero de 2025.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

Aldekoak: 4 (EH BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak:0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.- Kontratu txikien berri ematea. 2025SCTX001 / 2025SCTX003 (2025/70 eta 2025/102 deketuak). **3.- Dación de cuenta de los contratos menores. 2025SCTX001 /2025SCTX003 (Decretos 2025/70 y 2025/102).**

2025/0070. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

Ordiziko Udalean hainbat xederi aurre egiteko ondoren zehazten diren kontratu txikiak izapidetzeko beharra ikusi dela eta hauek behar bezala justifikatu direla.


Aplikagarriak diren “21/2003 Foru Araua , abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa” eta “9/2017 Legea azaroaren 8koa Sektore Publikoko Kontratuena” kontuan izanda.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik,

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

Ondoko taulan zehazten diren gastuak onartzea eta hirugarren hauei esleitzea:


Espedientea	Zenb	BEZaren zenbat	Hirugarrena	NA - IFZ	Xedea
2025-ESKA-000001-00	655,00	137,55	GRAFICAS ARALAR, S.C.	J13655758	"Bizi urtarrila" kultur ale agendako 4700 inprimatzea
2025-ESKA-000002-00	6.700,00	670,00	SANZ NUÑEZ, JUAN PABLO-ATRACCIONES	44146117D	Urtarrilaren 2an, 3an eta 4an haur parkea jartzea



Ordiziako Udala

2025ITGB0001

			SANZ		
2025-ESKA-000003-00	700,00	0,00	IPARRA HEGOA KULTUR ELKARTEA	G20921938	Kuxkuxtu txaranga kontratatzea
2025-ESKA-000004-00	2.435,32	511,42	LANKU BERTSO ZERBITZUAK, S.L.	B20810693	Urtarrilaren 4an bertso saioa egitea
2025-ESKA-000005-00	3.550,00	0,00	CLUB HIPICO LAZKAOMENDI	G20598835	Erregeen kabalgatarako 10 zaldi ekartzea
2025-ESKA-000007-00	1.794,00	376,74	WC LOC, ESPAÑA, S.L	B85849925	Musika lokaletarako Komun autonomoaren alokairua, hustutzea eta garbiketa du helburu kontratu honek
2025-ESKA-000008-00	3.800,00	798,00	HIKA ANTZERKI TALDEA	B20194106	Antzerki Garaia programaren barruan "Zorretan" antzezlanaren kontratatzea (2024-01-10)
2025-ESKA-000009-00	945,00	198,45	IMAUDIO - ALBERTO INZA MIHURA	15991145G	Zorretan antzezlenerako ari ekipoaren alokairua
2025-ESKA-000010-00	375,00	78,75	LECUONA FERNANDEZ DE RETANA, M. EUGENIA	72438112A	Kultur jardueren hedapenerako urtarreko agendaren diseinua eta maketazioa egitea
2025-ESKA-000011-00	2.250,00	0,00	MESTIZA ELKARTE ARTISTIKO-SOZIOKULTURALA	G20973392	2025ean Liburu Baby kluba jardueraren irakurketa sustatzeko 9 saio egitea 0-3 urteko haurrentzat
2025-ESKA-000012-00	2.500,00	0,00	LEIVA REPISO, MONICA	46712421L	2025ean irakurketa erraza dinamizatzea. 25 saio
2025-ESKA-000013-00	3.160,00	663,60	ACV MULTIMEDIA S.L.	B44703676	Nicolas de Lekuona webgune berriaren garapena eta edukien migrazioa (180 inguru)
2025-ESKA-000014-00	232,00	48,72	ACV MULTIMEDIA S.L.	B44703676	www.nicolasdelekuona.eus domeinuaren urteko mantenua
2025-ESKA-000015-00	3.929,80	0,00	ABIAN FISIOTERAPIA ZENTROA S.COOP	F20823910	Ordiziako Udalak Jabekuntza Eskolako programan eskaini nahi duen ZORU PELBIKOA INDARTZEKO I ikastaroa emateko zerbitzua kontratatzea (otsaila-apirila).
2025-ESKA-000016-00	935,00	0,00	MELCHOR SERNA, CARMEN	14596285W	Ordiziako Udalak Jabekuntza Eskolako programan eskaini nahi duen OINARRIZKO BRIKOLAJEA bi ikastaro emateko zerbitzua kontratatzea.
2025-ESKA-000017-00	4.912,97	49,82	SORBURU KOOP.ELK.TXIKIA	F75120337	Ordiziako Udalak Jatorri anitza duten emakume "Bizitza-AL Hayat" ahalduztze guneko zerbitzua kontratatzea (Urtariletik -



Ordiziako Udala

					2025ITGB0001 martxora), zaintza zerbitzua barne.
2025-ESKA- 000018-00	2.777,44	0,00	BOTAPA BATUKADA ELKARTEA	G75066654	Ordiziako Udalak Jabekuntza Eskolako programan eskaini nahi duen BATUKADA FEMINISTA ikastaroa emateko zerbitzua kontratatzeari (2025 urtarrila- ekaina).
2025-ESKA- 000019-00	550,00	115,50	ELHUYAR FUNDAZIOA	G20780896	Ordiziako Udalak herrian egin nahi duen, Emakume eta neska zientzialarien nazioarteko egunaren inguruan, "Emakume- zientzialariak argira" sentsibilizazio erakusketa (materialak) kontratatzea.
2025-ESKA- 000020-00	9.921,00	992,10	PAUSOKA ENTERTAINMENT SL	B20784948	Golazen 11 emanaldiaren bi saio kontratatzea
2025-ESKA- 000021-00	900,00	189,00	BEATRIZ EGIZABAL OLLOKIEGI - KONTUKANTOI	35771115C	Ordiziako Udalak herrian Martxoaren 8aren egunaren inguruko kanpainan egin nahi duen "GREGORIA" antzerkia kontratatzea.
2025-ESKA- 000022-00	450,00	0,00	AGUNDEZ DEL CASTILLO, SANDRA	72501383R	Ordiziako Udalak Jabekuntza Eskolako programan eskaini nahi duen IRAKURKETA FEMINISTAREN KLUBA dinamizatzeko zerbitzua kontratatzeari (2025 urtarrila- maiatza).
2025-ESKA- 000023-00	668,40	0,00	WARNER BROS ENTERTAINMENT ESPAÑA	B28860534	Jurado nº2 filma kontratatzea
2025-ESKA- 000024-00	317,30	66,63	LECUONA FERNANDEZ DE RETANA, M. EUGENIA	72438112A	Ordiziako Udalak herrian egin nahi duen, "Emakume- zientzialariak argira" erakusketarako materialak egokitzeko eta inprimitzeko zerbitzuak kontratatzea.
2025-ESKA- 000025-00	538,00	112,98	ANTZA INPRIMATEGIA	A20145496	Barrenan Jose Mari Telleriaren erakusketa egiteko katalogoa egitea
2025-ESKA- 000026-00	705,00	148,05	IZT KOOP.E.	F20869053	Gaztelekurako 2 ordenagailuen prestaketa lanak eta pantaila berriak
2025-ESKA- 000028-00	600,00	126,00	SORALUZE ELEKTRIZITATEA - JON SORALUZE	72451206X	Erregeen kabalgotan soinu ekipoa eta argia eta generadorea jartzea
2025-ESKA- 000029-00	2.060,00	432,60	IMC CAD	B20996708	Autocad One bi urteko lizentzien urte beteko luzaketa eta laguntza teknikoa

2025/0102. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

Ordiziako Udalean hainbat xederi aurre egiteko ondoren zehazten diren kontratu txikiak izapidetzeko beharra ikusi dela eta hauek behar bezala justifikatu direla.


Aplikagarriak diren “21/2003 Foru Araua , abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa” eta “9/2017 Legea azaroaren 8koa Sektore Publikoko Kontratuena” kontuan izanda.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik,

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

Ondoko taulan zehazten diren gastuak onartzea eta hirugarren hauei esleitzea:

Espedientea	Zenbatek	BEZ	Hirugarrena	NA - IFZ	Xedea
2025-ESKA-000030-00	1.000,00	0,00	PARROQUIA ASUNCION DE NUESTRA SEÑORA	R2000232E	Erregen kabalgataren antolaketa
2025-ESKA-000031-00	2.700,00	0,00	THE WALT DISNEY COMPANY IBERIA S.L	B82764416	Herri antzokian urtariletik uztaileira proiektatu behar diren filmak alokatzea
2025-ESKA-000032-00	540,00	0,00	WARNER BROS ENTERTAINMENT ESPAÑA	B28860534	Herri antzokian urtariletik uztaileira proiektatu behar diren filmak alokatzea
2025-ESKA-000033-00	2.500,00	0,00	ELASTICA FILMS, S.L.	B05373311	Herri Antzokian urtariletik uztaileira proiektatu behar diren filmak alokatzea
2025-ESKA-000035-00	7.100,00	0,00	ALBERTO ORTIZ ABAJO-PURIFICACION GUERRER	J95892808	Herri Antzokian urtariletik uztaileira proiektatu behar diren filmak alokatzea
2025-ESKA-000036-00	2.400,00	0,00	UNIVERSAL PICTURES INTERNACIONAL S.L	B08084394	Herri Antzokian urtariletik uztaileira proiektatu behar diren filmak alokatzea
2025-ESKA-000037-00	6.000,00	1.260,00	TXALO PRODUKZIOAK S.L.	B20564993	2025eko otsailaren 14ean Antzerki Garaia programaren barruan antzezteko Arizona antzeztanaren bi saio kontratatzea
2025-ESKA-000038-00	650,00	0,00	BTEAM PICTURES	B65982308	Herri Antzokian urtariletik uztaileira proiektatu behar diren filmak alokatzea
2025-ESKA-000039-00	1.500,00	0,00	KAMERATA OIASSO MUSIKA ELKARTEA	G75154476	Oiasso Kamerata Musika Elkartearen kontratatzea kontzertua emateko



Ordiziako Udala

2025ITGB0001

2025-ESKA-000040-00	3.709,06	370,91	CATALIN, FILIP	X8537526H	Goazen Ordizia ekimenerako 2025 urtean zehar, taxi egokituaren zerbitzua. San Jose egoitzatik herrira.
2025-ESKA-000041-00	98,00	20,58	LECUONA FERNANDEZ DE RETANA, M. EUGENIA	72438112A	Hitz egin dezagun gure zaintzan hitzaldiko kartelaren diseinua
2025-ESKA-000042-00	500,00	105,00	IRAZOKI AGIRRE, JOSEBA	72669442E	Urtarrilaren 24rako kontzertua kontratatzea
2025-ESKA-000043-00	6.800,00	0,00	MUJIKA PAGNON MARIA ROSARIO	15897488A	Urteko liburu erosketak egitea.
2025-ESKA-000044-00	1.500,00	0,00	BETA FICTION SPAIN S.L.	B42891663	Herri Antzokian proiektatzeko filmak alokatzea
2025-ESKA-000045-00	824,00	173,04	GRAFICAS ARALAR, S.C.	J13655758	"Bizi otsaila" kultur agendako 4700 ale inprimatzea

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.


Julen Iraolak galdetu du zertan datzan Nicolas Lekuonarekin zerikusia duen kontratuak. *Julen Iraola pregunta en qué consiste el contrato relacionado con Nicolás Lekuona.*

Alkateak adierazi du Kultura Saitetik izapidetzen ari dela, Nicolas Lekuona artistari buruzko webgunea eguneratzen ari da. Hau da, artista ordiziar garrantzitsu hori buruzko lan bat egin zen bere garaian, eta informazio hori berreskuratu eta eguneratu nahi da. Gaur egun, informazio hori iraultzen ari gara, baina aurkeztuko da ofizialki. *El alcalde indica que se tramita desde el departamento de Cultura, y es en relación a una web sobre la figura de Nikolas Lekuona. Es decir, se elaboró un trabajo sobre este artista ordiziarra importante, y se ha recuperado esa información a la vez que se está actualizando. Actualmente se está volcando esa información, pero cuando se finalice ya se hará la presentación oficial correspondiente.*

Julen Iraolak dio: errepublikako ideia aintzat hartuta, kabalkadagatik Elizaren alde egiten den ordainketari edo kudeaketari buruzko hausnarketa egitea gustatuko litzaidake. *Julen Iraola comenta: como idea republicana me gustaría solicitar hacer una reflexión sobre el pago y gestión que se hace a favor de la Iglesia por la cabalgata.*

Jakinaren gainean geraetu da Batzarra.





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Zenbait txosten eta eskaera

Idazkariak adierazi du 2024. urte osoko kudeaketa-txostenak eskatu direla, eta, gaur egun, txosten horiek bateratzeko eta aurrekontu-partidekin lotzeko modua lantzen ari direla.

Julen Iraolak eskatu du moduren bat ote dagoen taula tipoak excel edo word ez den beste modu batean ikusi ahal izateko.

4.- Informes y solicitudes varias.

La secretaria comenta que se han solicitado los informes de gestión de todo el año 2024, y que actualmente se está trabajando la forma de unificar esos informes además de relacionarlos con las partidas presupuestarias.

Julen Iraola solicita si existe alguna forma para que las tablas tipo se puedan ver de otra forma que no sea excel o word.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Galde-erreguak

Joseba Aranburuk komentatzen du: Urdanetaren obraren dirulaguntzan jakin nahiko luke zein mugimendu egin den aurreikusita zeuden 700.000 euroekin. Bere garaian proposatu zuen lizitazioa 700.000eurotan ateratzea, beraz jakin nahi du benetan 2025ean zer ateratzen den eta zer ez ...

Maitane Álvarezek komentatzen du luzatutako aurrekontuetan, partida batzuetan mugimenduak baldintzatuta daudela. Aurrekoan adierazi zuen bezala, inbertsio bat proiektu espezifiko baterako proiektatuta badago, ezin da luzatu. Gauza bera gertatzen da diru-laguntza izendunekin, ezin dira luzatu eta beste mugimendu bat egite beharrezkoa da


Alkateak esan du lizitazioa 2024ean atera zela azkenean, urtea amaitu baino lehen, 2024eko partidetatik. Hurrengo faseko lanentzat, konpromiso politikoa dagoela, baina gaur egun ez dagoela luzatutako

5.- Ruegos y preguntas.

Joseba Aranburu comenta: Le gustaría saber en la subvención de la obra de Urdaneta, cual es movimiento que se hace con los 700.000 euros que estaban previstos. Él en su día propuso sacar la licitación en 700.000, entonces realmente que se saca en el 2025 y que no.

Maitane Álvarez comenta que estando en los presupuestos prorrogados, los movimientos en algunas partidas están condicionados. Como bien indicó la otra vez, si una inversión está proyectada para un Proyecto específico, no se puede prorrogar. Lo mismo ocurre con las subvenciones nominativas, no se pueden prorrogar y requiere hacer otro movimiento

El alcalde comenta que la licitación finalmente se publicó en 2024, antes de finalizar el año y de las partidas de 2024. Para los trabajos de las fases posteriores, existe un compromiso político, pero



Ordiziako Udala

2025ITGB0001

aurrekontuetan inbertsio horietarako partidarik. Diru-laguntzari dagokionez, diru-sarrerak aurreikuspenak dira, eta batzuetan betetzen dira, eta besteetan ez. Eskolarekin hitz egin da gauzatze epe optimoa ekainetik irailera bitartean izango zela esan digutenez, eta horregatik udako epe horretan egingo dira lanak. Eta berriro laguntza lortzeko ziurtasunik ba ote dugun galdetzen zaigunean, esan behar dugu baietz uste dugula, baina ziurtasuna ezin dela inoiz % 100ean eduki. Hezkuntza Sailarekin egindako bileretan, behin eta berriz errepikatu dugu kontuan har gaitzatela eta, batez ere, obrak duen inbertsio bereziaren izaera eta ikastetxeak modernizatzeko duen premia azpimarratu dugu. Lizitazioa egina dago, obra 2025ean ordainduko da, eta diru-laguntza 2025eko aurrekontuan jasotzea espero da. Gaur egun, falta diren lanen proiektua lizitzatzeko modalitate onuragarriena aztertzen ari gara, hau da, urtez urte proiektu ezberdin bat izan daitekeen edo zer den egokiena, eta gure ustez zentroarentzat kalte gutxien eragiten duen modua hori da. Beraz, fatxada eta arotzeriak, sarrerako arkupe edo estalki berria eta patioko espazioen berregituraketa atera behar ditugu, eta aztertzen ari dira ea lizitazioan hobe den hiru loteak batera ateratzea.

Joseba Aranburuk honakoa galdetu du: urtarrelean obra lizitatzan ari gara, laguntza lortu aurretik, eta zergatik 2024ko ekainean ez zen obra lizitatu ...

Maitane Álvarezek esan du oraindik proiektua amaitu gabe zegoela, eta horrek kontratazioan eragiten duela, proiektua ez badago pleguetan ezin da sartu obrarako beharrezkoa den oinarritzko informazioa.


Ana Sanchezek honakoa galdetu du: Orduan, aurrekontuen luzapenarekin nominatiboak direnak ez dira luzatzen?

actualmente esas inversiones no tienen partida en los presupuestos, porque estamos ante unos presupuestos prorrogados. En cuanto a la subvención, los ingresos son previsiones que a veces se cumplen y otras veces no. Se ha hablado con el centro y nos dicen que el periodo de ejecución optimo seria entre los meses de junio-septiembre, por eso se ha puesto ese plazo en la licitación. Y ante la pregunta que se hace sobre si tenemos certeza de conseguir nuevamente la ayuda, comentar que creemos que sí pero certeza nunca se puede tener al 100%. En las reuniones con el departamento de educación, hemos reiterado que nos tengan en cuenta y sobre todo hemos remarcado el carácter especial de la inversión y la necesidad de modernización del centro. La licitación ya está lanzada, la obra se pagará en el 2025 y se espera obtener la ayuda para que se refleje en el presupuesto de 2025. Actualmente se está analizando la modalidad más ventajosa para licitar la redacción del proyecto o proyectos de los trabajos que faltan, es decir, si deben ser proyectos distintos año a año, porque entendemos que es el modo menos dañino para el centro. Por lo tanto, tenemos que sacar la envolvente y la fachada, el porche de acceso o nueva cubierta y los espacios libres del patio, y se está analizando si en la licitación es mejor sacar los tres lotes.

Joseba Aranburu pregunta lo siguiente: si estamos en enero licitando la obra, cuando no hemos obtenido la ayuda, porque no se pudo licitar en junio del 2024 la obra

Maitane Álvarez comenta que aún no estaba finalizado el Proyecto, y eso afecta en la contratación porque no se puede incorporar en los pliegos información básica y necesaria para la obra.

Ana Sánchez pregunta lo siguiente: ¿entonces, con la prórroga de presupuestos los que son nominativos no se prorrogan? ¿Y la cuantía se había



Ordiziako Udala

2025ITGB0001

Eta izendun bezala zenbatekoa kopurua jarri zen? Bestalde, laguntza noiz emango zain nagoela uste dut, ezta? ...

indicado como nominativa? Por otra parte, entiendo que estamos esperando a que nos concedan la ayuda, ¿verdad?

Maitane Alvarez erantzun du laguntzetan finduz joan garela eta hau zela diru kopuru osoa jartzen genuen lehen urtea, zatikatu beharrean. Izendunei dagokienez, ez dira luzatzen eta, gaur egun, aurrekontu luzatua dugunez, likidazioa egin arte ezin da horien ordainketa agindurik eman. Laguntzari dagokionez, gaur egun 2025eko deialdia argitaratzeko zain gaude, eta bertara aurkeztu beharko gara.

Maitane Alvarez responde que en las ayudas hemos ido afinando y este era el primer año que poníamos la cantidad íntegra en vez de fraccionar. En cuanto a las nominativas, no se prorrogan y, actualmente como tenemos presupuesto prorrogado, hasta efectuar la liquidación no se puede dar orden de pago de estas. En relación con la ayuda, actualmente estamos esperando se publique la convocatoria del 2025, y deberemos presentarnos a ella.

Alkateak aipatu du urtean gehienez 360.000 euro lor daitezkeela, 600.000 euroko inbertsioa egiten bada.

El alcalde menciona que la cantidad máxima que se puede obtener anualmente asciende a 360.000 euros, si se hace una inversión de 600.000€.

Joseba Aranburuk galdetu du ea 2024rako jasotzea aurreikusten ziren 700.000 euroak 2025eko aurrekontuan barneratzen diren.

Joseba Aranburu pregunta si la cantidad de 700.000 euros que estaban previstos recibir en el año 2024, se van a incorporar en los presupuestos del 2025

Alkateak esan du deialdian 2024koak sartzen direla, nahiz eta obra 2025ean amaitu.

El alcalde comenta que en la convocatoria se incorporan las de 2024 aunque la obra finalice en el 2025.

.....

Julen Iraolak honako hau azaldu du: Torresol inguruan arazoak daude ur-kanalizazioekin. Dirudienez, egungo sareta edo kutxeta buxatu egiten da. Galdetu du ea sareta espaloiarekin amaieraraino irekitzeko aukerarik dagoen, ura hobeto bideratzeko. ...

Julen Iraola expone lo siguiente: en la zona de Torresol existen problemas con las canalizaciones de agua. Al parecer se taponan la rejilla o arqueta actual. Pregunta si existe la opción de abrir la rejilla hasta el final de la acera para canalizar mejor el agua.


.....

Ana Sanchezek P21 igogailuaren mantentze-lanei buruzko informazioa eskatu du.

Ana Sánchez solicita información sobre el mantenimiento del ascensor P21.

Alkateak esan du erabilera publikokoa dela, baina inguruan arazoak sortzen dituela, barruan koadrilak sartzen omen

El alcalde comenta que es de uso público, pero genera problemas en el entorno porque al parecer entran cuadrillas en el



Ordiziako Udala

2025ITGB0001

direlako. Egia esan, eraikina 75 urterako emakida da, eta printzipioz emakidadunari dagokio mantenuari aurre egitea. Egun Udalak igogailua, atea eta irristagaitza bere gain hartu behar izan ditu. ...

interior. En verdad que el edificio es una concesión para 75 años, y en principio corresponde al concesionario hacer frente al mantenimiento. Actualmente el Ayuntamiento ha tenido que asumir el ascensor, la Puerta y el antideslizante.

.....

Julen Iraolak Larratxa etxean dauden gazteei buruzko informazioa eskatu du. ...

Julen Iraola solicita información sobre los jóvenes que están en la casa Larratxa.

Alkateak arazoa aipatu du, eta etxea erosi duen jabeak gaur egun Ordizian hainbat etxebizitza dituela eta afera ugari sortzen ari dela adierazi du.

El alcalde comenta la problemática, e indica que el propietario que ha comprado la casa actualmente tiene varias viviendas en Ordizia, y que están causando problemas.

.....

Joseba Aranburuk esan du La Paz tabernako edukiontzien aurrean arratoiak buruzko kexak eta argazkiak jaso dituela, eta eskatu du ea edukiontziak lekuz mugitu daitezkeen arratoiak ager ez daitezen.

Joseba Aranburu comenta: que ha recibido quejas y fotos sobre las ratas en frente de los contenedores del Bar La Paz, y solicita si se pueden mover los contenedores de lugar para evitar que aparezcan las ratas.

Maitane Alvarezek esan du Anticimex-ekin dugun kontratua abuztura arte dela indarrean, eta hainbat aukera aztertzen ari direla. Horren berri emango du ...

Maitane Alvarez comenta que el contrato con Anticimex está en vigor hasta agosto., y se están estudiando varias opciones. Ya se os ira informando al respecto.

.....

Viviana Angelica Murillok Altamiran egiten ari diren obrei buruz galdetu du. Maitane Álvarezek horren inguruko informazioa galdetuko duela erantzun dio.


Viviana Angelica Murillo pregunta sobre las obras que se están llevando a cabo en Altamira. Maitane Álvarez le contesta que preguntara sobre ello.

.....

Alkateak hainbat gai aipatu ditu: batetik, bidalitako egutegiaren gaia argitu du. Adierazi du adostu zen egutegia dela, eta, beraz, mantendu egiten dela.

El alcalde comenta varios temas: por una parte, aclara el tema del calendario remitido. Indica que es el calendario que se llegó a consensuar, por lo tanto, se mantiene.

.....



Ordiziako Udala

2025ITGB0001

Bestalde, zinegotziei informazioa ezkututzen ari zaiela dirudien zalantzak saihestu eta uxatzeko, idazkariari bozeramaileak espedienteetara sartzeko baliabideak jartzea eskatu zaio, eta horretarako kontratu bat prestatzea, zinegotziek euren ardurapean kontsultatuko dituzten datuak modu egokian eta soilik ordezkarrerabiliko dituztela sinatu dezaten.

Por otro lado, para evitar y disipar dudas sobre que parece se esté ocultando información a los concejales, se ha solicitado a secretaria se de acceso a los expedientes, y que prepare un contrato para que las y los concejales, bajo su responsabilidad, firmen que van a tratar los datos consultados de manera correcta y tan solo para el uso de sus funciones como representantes públicos.

.....

Gobernu Batzordeari dagokienez, organo aholku-emaila dela ere azpimarratu nahi du, alkateak izendatzen ditu erabakiak hartzerako orduan laguntza eskatzeko, eta denbora daramagula modu irekian eta parte hartzailean egiten. Baina iruditzen zaio egoera ezin dela gehiago luzatu, eta batzuetan ez dela kontuan hartzen borondatez egiten dela, eta ez legeak behartuta. Argi dago oposizioak lan fiskalizatzailea duela, baina guk herriarentzat lan egiten dugu eta bakoitzak bere lana egin behar du. Alderdi bakoitzak bere aholkulariak lortu beharko ditu, eta informazioa aztertuko beharko du, gai ororen azterketa xehatua guk aurkeztu beharrean. Soilik nahi dut kontuan hartzea borondatea dagoelako eta gauzak errazte aldera Gobernu Batzordeak funtzionatzen duela funtzionatzen duen bezala, baina zaila da, beti oztopoak jartzen direlako.


En relación con las Juntas de Gobierno, también quiere hacer subrayar que es un órgano consultivo, que nombra el alcalde para solicitar ayuda en la toma de decisiones, y que llevamos tiempo que se están efectuando de un modo abierto y participativo. Pero tiene la sensación de que el chicle no se puede estirar más, y que a veces no se tiene en consideración de que se hace por voluntad y no por obligación legal. Es claro que la oposición tiene una labor fiscalizadora, pero nosotros trabajamos para el pueblo y cada uno tiene que hacer su trabajo. Cada cual tendrá que buscar en su partido la asesoría para analizar la información, sin que tengamos que explicar todo con análisis incorporado. Solo quiero se tenga en consideración de que la Junta de Gobierno funciona como funciona por voluntad y para facilitar, pero es complicado porque siempre se entorpece.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la secretaria, certifico.

Sinatzaileak	IDAZKARIA / IDAZKARIA
Firmantes	Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave



Ordiziako Udala

2025ITGB0001



Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAQHY39.A6Dv>